

# BESTELAKO XEDAPENAK

## SEGURTASUN SAILA

### 661

*EBAZPENA, 2018ko urtarrilaren 31koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, argitara ematen duena larrialdien eta babes zibilaren arloan bereizgarri gorriko merezimendu-domina jaso dutenen zerrenda.*

Larrialdien eta babes zibilaren arloko bereizgarri gorriko dominak emateari buruzko Segur-tasuneko sailburuak 2018ko urtarrilaren 26an emandako aginduetan xedatutakoari jarraikiz, eta Eusko Jaurlaritzaren larrialdien eta babes zibilaren arloko sariei buruzko azaroaren 21eko 253/2017 Dekretuaren 12.1 artikuluan aurreikusitakoa oinarri hartuta, larrialdien eta babes zibila-ren arloko sariak baloratzeko Batzordearen ebazpen-proposamena entzun ostean, honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Segur-tasuneko sailburuak 2018ko urtarrilaren 26ko Aginduaren bidez larrialdien eta babes zibilaren arloan bereizgarri gorriko merezimendu-domina ematea eba-tzi duela ondoren zehazten direnei:

- Alberto Iñurrategi.
- Juan Vallejo.
- Mikel Zabalza.

Bigarrena.– Azaroaren 21eko 253/2017 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, zehaztutako horiek domina bana jasoko dute jendaurreko ekitaldian, saria jasotzeko eginiko merezimenduak eta erakutsitako dohainak goraiatzeko.

Hirugarrena.– Argitara bedi ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 31.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,  
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.